

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

# Legalitatea eta legitimitatea

**B**ougainville Pazifikokoan dago, Euskal Herri-  
tik 15.000 kilometrora. Salomon uharteeta-  
ko artxipelagoan. Egun Papua Ginea Berri-  
ko Estatuaren pean. 1998an Papua Ginea  
Berriak eta Bougainvillek sinaturiko bake  
akordioa betez, 2019an Bougainvillek erre-  
ferendum ez-lotesle bat egin zuen. Erreferendumean bi  
erantzunen artean aukeratzeko modua zuten: autono-  
mia gehiago edo independentzia. %87,54ko parte-har-  
tzea egon zen eta horietarik %98,31k independentziaren  
alde bozkatu zuten.

Nazioarteko komunitateak Bertie Ahern, Irlandako le-  
hen ministro ohia, Ostiral Santuko akordioaren sinatzai-  
le eta protagonistetako bat, eta Aieteko Adierazpenaren  
irakurlea, izendatu zuen Bougainvilleko erreferendume-  
an nazioarteko estandarrak betetzen zirela ziurtatzeko.  
Bere erreferendum osteko txostena argia izan zen. Bai,  
erreferendumak beharrezko berme guztiak bete zituen.

Emaitza oso argia, oso kontundentea, baina esan beza-  
la, ez-loteslea. Erreferenduma gatazka politiko bat politi-  
karen bidez konpontzeko saiakeren ondorioa da. Akor-  
dio baten ondorioa. Erreferendumak berak eta emaitzak  
gatazkak edo interes kontrajarriek hor dirautela argi era-  
kutsi dute, eta bide baten amaiera baino gehiago, nego-  
ziazio saio berri baten hasiera ekarri du. Brexitak, beste  
adibide bat jartzearen, ez zuen zuzenean eta berehala  
ekarri Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzea,  
baizik eta Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratze-  
ko bien arteko negoziazioei hasiera eman zien.

2021eko maiatzean, egun hauetan, Papua Ginea Be-  
rriaren eta Bougainvilleren arteko elkarrizketa saio ma-  
mitsu bat gauzatu da. Helburua? Erreferendumaren  
emaitzen inguruko gogoeta egin eta 1998ko bake proze-  
sua inplementazioarekin aurrera nola jarraitu ados-  
tea. Elkarrizketa saio horren amaieran, maiatzaren 19an,  
Papua Ginea Berriko lehen ministroa den James Mara-  
pek eta Bougainvilleko Autonomia Gobernuak lehenda-  
karia den Ishmael Toroamak deklarazio bat publiko egin  
zuten elkarrekin. Batera deklarazio bat egiteak badu be-  
rez bere garrantzia. Deklarazioaren mamia, horrelako  
deklarazioetan ohikoa denez, nahiko anbigua da, baina  
modu ofizialean onartu egiten du Bougainvilleko biz-

tanleen gehiengoak independentziaren alde bozkatu  
duela.

Bougainvilleko independentistentzat horren esanahi  
nagusia independentzia gauzatzea eta Papua Ginea Be-  
rriarekin izango duten harreman estatus berria negozia-  
tzea da. Papua Ginea Berriarentzat, aldiz, honen esa-  
nahia ezberdina da, negoziazio gehiago eta hurrengo  
gobernuaren esku uztea bien arteko harremana nolakoa  
izango den etorkizunean. Hauteskundeak datoz Papua  
Ginea Berrira, eta bertako adituen arabera, Mara-  
pek ez ditu berriz irabaziko.

15.000 kilometrora egonik ere, badira guretzat inte-  
resgarriak diren irakaspenak. Lehena, prozesuaren ga-  
rrantzia, E egunik ez da existitzen, ez da egongo, eta  
ematen diren aurrerapausoak eta atzerapausoak proze-  
su baten ikuspegitik aztertu behar dira. Gerra zibila, ba-  
ke prozesua, negoziazioak, erreferenduma eta berriro  
negoziazioak. *Statu quo*a defendatzen dutenek behin  
irabazita, prozesuaren amaiera ekar dezake. Papua Gi-  
nea Berriak gerra, negoziazioak edo erreferenduma ira-  
bazi izan balitu akabo. Independentistek erreferenduma  
irabazi dute baina horrek ez du garaipena ekarri. Gertu-  
ratu du, dudarik gabe, baina oraindik ikusteko dago in-  
dependentzia lortuko duten edo ez. Akordioen baliorik  
eza edo hobeto esanda, moldagarritasuna. Erreferendu-  
ma ez-loteslea zen, legalki bere emaitzak ez du ondorio-  
rik, baina legitimitate ikuspegi batetik argi dago emaitza  
kontuan hartzea behartua izan dela Papua Ginea Berri-  
ko Gobernua. Nazioarteko ikuspegitik, araua ez den  
arren, gero eta gehiago erabiltzen da eta nahiko hedatua  
dago halako gatazkak konpontzeko bide egokiena, era-  
ginkorra, erreferendum adostua dela. Laster Eskozian  
ere ikusiko dugu. Nicola Sturgeonek berriki esan bezala,  
galdera ez da erreferenduma egiterik dagoen, baizik eta  
noiz egingo den. Betiere horren aldeko gehiengo bat ar-  
tikulatzeko gai zarenean noski. Eta azkenik, independen-  
tziarako bidean Bougainvilleko independentistek dau-  
katen arriskueta bat barne liskarrak eta horiek ekar  
ditzaketen ondorio latzak dira. Ezaguna egiten zaizue?  
Esan bezala, badira, bai, gurean eta gure inguru hurbile-  
an garatzen ari diren zenbait prozesu independentisten-  
tzat irakaspen interesgarriak dakartzatenak. •